



Euskadiko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektorialaren Berrikuspena eta Egokitzapena

2. FASEA



Herritarren parte-hartze prozesuan
jasotako proposamen eta ekarpenen
itzulketa



Sarrera

Dokumentu honek Euskadiko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) Berrikuspen eta Egokitzapenaren esparruan egindako **herritarren parte-hartze prozesuaren itzulketaren fasea osatzen du**. Parte-hartze saioetan bildutako herritarren ekarpen-fitxak jaso eta aztertu ondoren, Euskal Trenbide Sarearen (ETS) talde teknikoak banan-banan berrikusi ditu herritarrek planteatutako iradokizun, kezka eta proposamen guztiak.

Itzulketaren helburu nagusia ekarpen bakoitzari erantzun garden, argi eta teknikoki justifikatua ematea da, gure azpiegituren plangintza-prozesuaren jarraipena erraztuz. Informazioa modu ordenatuan egituratzeko, jasotako proposamenak bi taula bereizitan sailkatu dira:

- **LPSn sartzeko aztertuko diren proposamenak**
Idazketa-fasearen barruan aztertzeko bideragarritzat jotzen diren ekarpenak biltzen ditu, lehen mailako iragazki tekniko eta estrategiko baten ondoren. [Ekarpen batzuetan](#), LPSan sartzeko aukeraren irismena argitzen duten oharak sartu dira.
- **LPSn sartzeko aurreikusten EZ diren proposamenak**
Azterketa teknikoa egin ondoren baztertutako proposamenak biltzen ditu.

Tauletan agertuko dena

Proposamenak aipatzen duen
trenbide-sarea

-  Zabalera konbentzionala
-  Zabalera metrikoa
-  Tranbia
-  Logistika eta merkantzien sarea
-  AHT
-  Proposamen orokorrak

Aztertuko EZ diren proposamenen kasuan hurrengo informazioa argitzen da, planaren xede ez izateagatik (eskaria dagokion erakundeari bideratzen lagunduz) edo bideragarritasun teknikoaren irizpideei erantzuten ez dielako baztertuko den ulertzeko:

LPSaren eskumenekoa al da?

-  Bai
-  Ez

1 Araba

LPSan sartzeko aztertuko diren proposamenak

	Proposamena	Oharrak
	Aldiriko trenen sarea hainbat geltoki berrirekin Gasteizen (BEI eta tranbiaren intermodal berriak), Datoko geltokia gaizki konektatuta baitago.	Iradokizun gisa, LPSan sartzeko aukera aztertuko da.
	Adarrak Forondako aireportura eta Miñano/Arasurrera.	
	Tranbiaren maiztasunak handitzea.	Mugapen horren baldintzatzaileak aztertuko dira.
	Gasteizko salgaien iparraldeko saihezbidea.	Iradokizun gisa, LPSan sartzeko aukera aztertuko da.
	Arkaute/Durana/Korapiloa/Betoño geralekua, Iruña - Bilbo trenak gelditzeko (Gasteiztik lotura egiteko aukera izanez gero). Tranbiarekin lotzeko aukera.	Iradokizun gisa, LPSan sartzeko aukera aztertuko da.

LPSan sartzeko aurreikusten EZ diren proposamenak

	Proposamena	LPSaren eskumenekoa al da?	Oharrak
	Mugikortasun murriztua duten erabiltzaileen egoera hobetzea: erreserbatutako espazioen kokalekuak, etab.		
	Legebiltzarra/Parlamento eta Lovaina geltokien arteko murrizketa edo lurperatzea.		Ez da LPSaren irismenaren parte Hirigintza-integrazio kontua da.
	Erabilera mistoak Betoñuko Kotxetegieta (Kotxetegiak + Etxebizitzak). Karlsruheakoaren (Alemania) antzekoa.		Aztertuko da zehaztapenetan, lursailen erabilera eskusiboa ez dela adieraziz. Hala ere, etxebizitzaren arloko eskumena ez dagokio LPSari.
	Tranbiaren geltoki berrien kokapena eta irisgarritasuna hobetu.		Ez da LPSaren irismenaren parte Araudia betetzea baino ez da aplikagarria.
	Azken miliako salgaien garraioa (Jundiz, CTV, Gasteizko tranbia).		
	Irisgarritasun egokia, oztoporik gabeko espazioekin.		Araudiaren betetzea baino ez da aplikagarria.
	Gasteizko lur gaineko geltokia, eta aurreztutako dirua Talgo-CAFe inbertitu.		
	Operadore eta garraibide guztien kudeaketaren koordinazio hobea. Arabako barne-antolaketa propioa.		Ez da LPSaren irismenaren parte Arabako Garraio Agintaritzari buruzko proposamena erakunde eskudunari helaraziko zaio.

2 Bizkaia

LPSan sartzeko aztertuko diren proposamenak

Proposamena	Oharrak
Ez C-1 linea tranbizarizatzeari (ezta beste inolako aldiriko lineari ere). Egungo aldiriko linea guztiak mantentzea.	LPSean txertatzeko aztertuko da.
C-2 linearen bikoizketa (trenbide bakarrekoa den lekuetan).	Iradokizun gisa, LPSan sartzeko aukera aztertuko da.
Aldiriko trenen maiztasunak hobetzea orokorrean.	Eskariaren arabera aztertuko da.
Arangurengo jarduketa birplanteatzea. Etorkizunean bidea bikoizteko aukera emango duen jarduketa bat gauzatzea (adibidez, goratua).	
Lurpeko geltoki bat eraikitzea. Ez kendu La Concordiako geltokia. Balmasedatik Bilborako aldiriko linea Errekalde inguruan gurutzatu beharko litzateke.	Abandoren jarduera orokorra kontuan hartuta aztertuko da.
Kobeta, Basurtu-Alonsotegi artean Adif-eri ematea (Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatua) eta egungo bidea ETSri uztea etorkizuneko L4 gisa.	
Aranguren-Sodupe trenbidearen bikoizketa.	
Aldiriko C-4 linearen abiadura eta ibilbide-denbora hobetzea.	
Santa Ageda eta Kastrexanako geltokiak metroaren L4 bihurtzea.	Eskari potentzialaren eta ibilbide-denboran duen eraginaren arabera aztertuko da.
L1 maiztasunen hobekuntza Berango eta Plentzia artean. Bikoizketa Plentzia eta Urduliz artean.	
EZ Plentzia-Urduliz trenbidearen bikoizketari.	Plentzia-Urduliz trenbidearen bikoizketa eskariaren eta jarduketa beharren arabera aztertuko da.

2 Bizkaia

	Proposamena	Oharrak
	Metro-sarea handitzea: 4. linea (Derio-Gurutzeta), 5. linea (Lezama-Zornotza), 6. linea (Urtuella-Plentzia, ibaiekoa). Erantsita doa plana.	6. linea ez da bateragarria aldapak direla eta; proposamenaren gainerakoa aztertuko da.
	Elorriorako linea berria: Durango - Abadiño - Atxondo - Elorrio.	Eskariaren arabera aztertuko da.
	People Mover motako konexioa Iralako etorkizuneko geltokiaren (L4) eta San Adrian auzoaren (Bilbo) artean.	Eskariaren arabera aztertuko da.
	Amorebietako bi geltokiak bakar batean bateratzeko trazadura-zuzenketa.	
	Trenbide-lotura Bilboko Aireportuarekin, eta aurreko faseak arintzea (la Ola saihasbidea).	LPSan sartzeko aztertuko da Aurretiko faseak arintzea ez da LPSaren irismenaren barruan sartzen.
	Trenbide-adarra aireportutik Mungialderantz luzatzea.	
	Trazaduraren aldaerak/zuzenketak eta zabalera metrikoko sarearen bikoizketa (E1, E4 lineak)	
	Intermodala Urbinagan (C-1, C-2 Aldiriak, Metroa, Autobusa, Tranbia).	
	ETSren sarearen zabalera-migrazioaren azterketa (C-1 eta C-2ren etorkizuneko eskualdaketa barne).	Aztertu egingo da, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzari proposatzeko.
	Trena/autobusa/metroa/bizikleta/disuasio-aparkalekuak. Ordutegiak barne.	LPSan txertatzeko aztertuko da partzialki; disuasio-aparkalekuak aztertuko dira; trenbidearen bestelako garraiobideekiko intermodalitatea hitzarmen bidez artikulatu beharko da.
	ETSren eta Adifen sareen arteko konexioak falta dira.	

2 Bizkaia

Proposamena	Oharrak
Tranbia Zorrotza puntaraino luzatzea Zorrotzaurretik. Edo espazio-erreserba bat aurreikustea hau handitzeko.	
Bilboko tranbia-sarea kotxearen erabilera murrizteko. 4 linearekin: zirkularra, Zorrotzaurre-Bolueta; Lutxana-San Adrian eta Errekalde-Bolueta. Erantsita doa planoak. Kaleak gizatiartzeko eta Bilbobus eta Bizkaibusekin intermodalitatea sustatzeko aprobetxatu.	
La Peñako tranbia: egungo trazadura zuzentzea, Mirafloresko tunela kentzea eta ibaiaren beste ertzean birkokatzea, La Peñan bi geltoki gehituz.	Eskariaren arabera aztertuko da.
Barakaldoko tranbia-eraztuna. Burtzeñatik igarotzen den adarra, Urbinagako trukagailuan geltokia duena eta Zorrozaurren Bilboko tranbiarekin lotura duena.	
Urbinaga-Leioa tranbia, itsasadarreko bidegurutzearekin, itsasadarreko nabigagarritasuna kontuan har dadila.	
Hegoaldeko trenbide-saihesbideari buruzko informazio-azterlanaren aurkako jarrera (2. fasea). Zehazki, Arrigorriagako parean lurrazaleko irteera bat egitea. Arrigorriagatik igarotzea saihestuko duen Informazio-azterlan berria proposatzen da, edo udalerriko (eta kaltetuak izan daitezkeen beste batzuetako) trenbideak lurperatzea, Hegoaldeko trenbide-saihesbideak lurpean jarrai dezan hegoalderago. Oro har, beste aukera batzuk aztertzea. Barakaldoko landa-eremuei ere eragiten die.	Azterlan informatiboaren behin betiko onarpenaren zain. Azterlan informatiboa informazio publikoan dago eta LPSak haren onarpenean ezartzen dena jasoko du.
Konexioa zabalera metrikoan (elektrifikatua) Bilboko portura merkantziarako.	

2 Bizkaia

LPSan sartzeko aurreikusten EZ diren proposamenak

	Proposamena	LPSren eskumene koa al da?	Oharrak
	C-2 Aldiriko trenbidea Castro-Urdialesera zabaltzea.		Eskumen-eremutik kanpo, ez baitago Euskal Autonomia Erkidegoan.
	C-3 linearen bikoizketa (trenbide bakarrekoa den lekuetan) + Mantentze-plana.		Trenbideak bide bikoitza du dagoeneko; mantentze-plana ez da ETSren irismenaren parte.
	Geltoki berria Plentzia eta Urduliz artean.		Ez dago bien arteko gunerik zerbitzu hau behar duenik.
	L4 luzapena Gurutzetara. Etorkizunean Rekalde - Masutegi - Zorrotza - Gurutzeta luzatuko da.		Aurreikusita dago 4. linea luzatzea Errekalde auzotik Basurtu, Zorrotza eta Kadaguako korridorera. Gurutzeta alderako luzapena bateraezina da jarduera honekin.
	L4 metroaren luzapena Intermodal/San Mamesera. Etorkizunean Rekalde-tik San Mamesera edo Basurtutik iparralderago dagoen geltoki berrira luzatzea.		Aurreikusita dago 4. metro linea 1. eta 2. lineekin lotzea Eliptikoa (Moyua) geltokian, San Mamesetik bi geltokira baino ez dagoena. Rekalde auzotik, Basurtu, Zorrotza eta Kadaguako korridorera luzatzea aurreikusten da. Ez dago aurreikusita Basurtuko geltokia iparralderago eramatea.
	Amorebietako hirian trenbidea integratzea.		Hiri-integrazio kontua da.
	Metroaren L5 lineako geltoki berria Basaurin/Galdakaon.		Ez da identifikatzen zein beste geltoki proposatzen den.
	Tren erdizuzenak Bilbo eta Durangaldea eta Busturialdea artean (L5 linea martxan jarri ondoren).		Zerbitzuaren operadoreari dagokio (Euskotren).

2 Bizkaia

	Proposamena	LPSren eskumen ekoa al da?	Oharrak
	Metroaren aireporturainoko luzapena AHTa martxan jarri arte atzeratzea, honek hegazkinari erabiltzaileak kendu diezazkiokeelako eta jada beharrezkoa izango ez litzatekeelako.		LPSak ez du denbora-plangintza definitzen.
	Bermeo eta Txorierriko adarrak Bilboko metroan integratzea (maiztasun txikiagoa izan arren). Metroko L3-L4-L5 lineen bateratzea.		Azpiegiturak aukera ematen du dagoeneko Bermeoko linearen eta Txorierriren arteko zuzeneko zerbitzuak eskaintzeko, Metroaren 3. linearen bidez, eta L4arekin ere ahalbidetuko du. Tarifak finkatzeko politika ez da LPSren irismenaren parte, eta Bizkaiko Foru Aldundia berrikusten ari da, doako garraio-aldaketak ahalbidetzeko helburuarekin.
	Bizikletak geltokietara eta trenen bagoietara sartzea erraztea: bizikleta-aparkaleku seguruak eta estaliak.		Eskaria Eusko Jaurlaritzari zuzendu zaio.
	Intermodalitatea beste garraibide batzuekin eta/edo bizikleta-aparkalekuekin erraz eta azkar egiteko aukera, oinezkoentzako ibilbide gehiago eta ingurune seguruak.		Eskaria Eusko Jaurlaritzari zuzendu zaio.
	Irisgarritasun unibertsala jarduketetan, pertsona guztientzat, eremu guztietan.		Araudiaren betetzea baino ez da aplikagarria.
	Tarifen integrazioa/garraio-agintaritza bakarra/garraio-txartel bakarra Bizkaian. Beste garraibide batzuekin aldaketak erraztea. Trenbidearen elikagailuak.		Eskaria Eusko Jaurlaritzari zuzendu zaio.
	Kutsadura murriztea. Hiriko espazioaren okupazioa murriztea / bide-pilaketak minimizatzea.		Ez da LPSaren irismenaren parte Helburua partekatzen da.



2 Bizkaia

	Proposamena	LPSren eskumenek oa al da?	Oharrak
	Sarratuko Intermodalerako tranbia. Irisgarritasun unibertsalarekin, geltoki seguruekin eta komunekin.		Ez da beharrezkotzat jotzen, proposamena Metroren aurreikusitako jarduketa batekin bat datorrelako. 5. lineako Kukullaga-Sarratu trazadurarekin bat dator.
	Urbinaaga-Leioa tranbia; ez gauzatu (badago autobus bat) edo aldatu trazadura oinezkoentzako guneak ez murrizteko.		Autobusak ez du eskaintzen ibilbide-denbora lehiakorrik; oinezkoen guneetako eragina murrizten saiatuko da.
	Tranbia, Sondikan geltokia duena, intermodala izan dadin.		Aztertutako alternatibak ez du errentagarritasun ekonomiko-sozialik eskaintzen.
	Salgaien trenbide-garraiorako inbertsio orokorra.		Proposamena partekatzen da, baina LPSaren irismenetik kanpo geratzen da.
	Abiadura handiko sarearen erabilera partzialak planteatu, AHTa eta tarte txikiagoak konbinatuz. Amorebieta-Bermeo linea zabalera estandarrera bihurtu. Bilbo-Bermeo zerbitzuak egin ahal izateko, Bilbo eta Amorebieta arteko abiadura handiko linea erabiliz.		Bideraezintzat jotzen da. Material mugikorrarekin bateraezintasuna dago.

3 Gipuzkoa

LPSan sartzeko aztertuko diren proposamenak



	Proposamena	Oharrak
	Euskal Herriko trenbidearen berrirekitzea / Deba Goieneko tren-trama: Maltzagatik Aretxabaletarainoko lotura, Oñatiko adarra eta Bergara-Zumarraga lotura.	
	Urolako trenbidearen berrirekitzea (lurpeko saihebidarekin Azpeitian, Trenbidearen Museoarekin ez oztopatzeko). Geraleku berriak, trazadura-zuzenketak eta industrialdeetako adarrak.	
	E2 linearen bikoizketa Errenteria eta Galtzaraborda artean, maiztasunak hobetzeko. Galtzaraborda eta Errenteria arteko biaduktua kentzea (trenbide bakarra, ia ezinezkoa bikoiztea espazio faltagatik).	Bikoizketa aztertuko da; biaduktua kentzea hiri-integrazio jarduketara bat da.
	Lasarte eta Andoain arteko linea zabaltzea. Andoainen, Aldiriko eta Euskotrenen arteko lotura.	
	Zumaia eta Zarautz arteko trazadura hobetzea. Geltokietako bihurguneak kentzea, bagoia eta nasaren arteko distantzia murrizteko.	
	Topo-Atotxa lotura. Topo anezka Egia eta Atotxara, Erdialdea-Kontxako geltokiarekin edo baita Intxaurrendorekin ere, Erdialdea-Kontxako geltokiaren saturazioa saihesteko.	
	Topoaren bigarren linea, Tolosaldera eta trenbiderik gabeko eremuetara hedatua. Bigarren lineak Tolosa-Irun tranbia-konexioa berreskuratuko luke, Donostia zeharkatuz eta Miramon, Aiete, Intxaurrendoa, Garbera, Errenteria, Oiartzun eta Txingudiri zerbitzua emanez, E2 sarean integratuta.	



3 Gipuzkoa

	Proposamena	Oharrak
	Trazaduraren zuzenketak eta maiztasunen hobekuntza orokorra.	
	Euskotren E1 linearen bikoizketa orokorra, maiztasunak hobetzea. Geltoki berriak zerbitzurik gabeko auzoetan.	
	San Pelaio-Orio trazadura berria, maiztasunak eta ibilbide-denborak hobetu ditzakeelako. Donostialdean 7,5 minutuko maiztasuna bermatzen duen edozein jarduera. Helburua: Errekaldetik Amarara 7,5 minuturo.	
	Txingudiko Badiako tranbia edo trena Linea: Hondarribiko Kirol Portua - Hondarribiko Aireportua - Irungo Geltokia - Kolon - San Juan - Dumboa - Antzaran - Behobia. Edo soilik Hondarribia eta Irun artean.	
	Donostiako tranbia sarea: 1. linea: Errekaleor - Tolsa hiribidea - Ondarreta - Bulebarra - Zurriola - Gros - Ategorrieta - Herrera. 2. linea: Bulebarra - Atotxa - Pio XII - Amara - Miramon.	LPSean sartzeko aztertuko da. Egungo sareak jatorri eta helmuga guztiak estaltzen ditu.
	Tranbia berria Donostialdean: Ospitaleak, Gros, Ategorrieta, Trintxerpe edo baita Hondarribia ere.	LPSan sartzeko aztertuko da. Zailtasunak daude kotxetegiatarako lekua aurkitzeko.
	Donostiako salgaien trenbideetan aldaketak, industrialdeekiko lotura (Deba Goiena). Salgaien aldeko apustua trenean.	
	Pasaiako portuko trenbide-sarbidea.	Lizitazioa martxan dago.





3 Gipuzkoa

	Proposamena	Oharrak
	AHTren Astigarragako geltokia. Aldiriko trenez gain, AHTa ere geldituko da. Intermodalitate-nodo berria.	ADIFI eta Garraio Ministerioari dagokie jarduketa. Lehen fasean, Aldiriko zerbitzuak gelditzea baino ez da aurreikusten, nahiz eta azpiegitura etorkizunean egokitu daitekeen beste zerbitzu batzuetarako.
	Kontxa-Atotxa intermodalitatea hobetzea: Kontxatik Atotxara anezka bat jartzea (bide bakarrek mini metro automatikoa). Egiaraino luzatu liteke eta Intxaurrondon Euskotrenekin lotu.	
	AHTren intermodalitatea. Tolosan: AHTren geltokia, egungo geltokiarekin lotuta. Ezkion: zabalera iberikoko bidea aldatzea, bagoien mende ez dagoen geltoki intermodal baterako.	Iradokizun gisa, LPSan sartzeko aztertuko da.
	Loiolako Erriberako trukagailua: garraiobide guztien irisgarritasun unibertsala bermatu, nasa-bagoia barne.	Loiolako Erriberetako trukagailua PTSan sartzeari aurreikusita dago Irisgarritasunari dagokionez, aplikatzekoa den araudia betetzea baino ez da aplikagarria.
	Tren-geltokien erabilera mistoak. Ekipamenduekin nahastu. Ez fidatu genero-neurri pasiboetan bakarrik. Udalekin partekatu eta erabilera anitzeko eraikin konplexuak egin.	Zehaztapenetan jaso ahal izango da Partzelak modu ez-esklusiboan erabiltzeko aukera adierazi ahal izango da; etxebizitzaren arloko eskumena ez dagokio LPSari.



3 Gipuzkoa

LPSan sartzeko aurreikusten EZ diren proposamenak

	Proposamena	LPSren eskumenekoa al da?	Oharrak
	Topoaren adarra Irun Kolonetik Hondarribira, Aireportutik eta Amutetik igarota.		Ibilbidea ez da bateragarria ingurumen ikuspegitik, paduretan duen eraginagatik.
	Eskaini geldialdi guztietan gelditzen ez diren zerbitzu espresak TOPOan.		Zerbitzuaren operadoreari dagokio (Euskotren).
	Oinezkoentzako pasabideak egitea trenbideen azpian iragazkortasuna eta hiri-irisgarritasuna hobetzeko: Errenteria-Gaztaño, Istueta (Donostia) eta Zarautz.		
	Trenbidea Donostialdean lurperatzea edo integrazioa aztertzea, Donostiako abiadura handikoa barne, hiriko oztopoak murrizteko.		
	Mugikorren estaldura zerbitzua Topo osoan ezartzea.		Eskaria Eusko Jaurlaritzari eta Euskotrenari zuzendu zaie.
	Euskotrenen megafonian Herrera eta Bentako geltokietan Renferekin dauden loturak iragartzea.		Eskaria operadoreari (Euskotren) zuzendu zaio.
	Euskotren/Topo ordutegiak luzatu: lehenago hasi, beranduago amaitu eta asteburuetakoa maiztasunak lanegunen antzekoak mantendu.		Eskaria operadoreari (Euskotren) zuzendu zaio.
	Aldirietako C-1 lineako geltokien irisgarritasuna hobetzea: zehazki, Tolosan.		Erakunde eskudunari helaraziko zaio (ADIF).
	Eskatu Adifi Loiolako Erriberako trukagailua 200 metroko nasarekin proiektatzeko, AHTa gelditu ahal izateko.		Ez da bideragarritzat jotzen AHTaren geltokia egitea, Riberas de Loiolako geltokia Donostiatik hurbil dagoelako.

3 Gipuzkoa


	Proposamena	LPSren eskumenekoa al da?	Oharrak
	C-1eko maiztasunen hobekuntza.		Erakunde eskudunera helaraziko zaio (Renfe).
	Geltoki berria Kristinaenean, bizilagunei eta ikasleei zerbitzua emateko.		Ez da justifikatutzat jotzen. Distantzia Loiolako Erriberako geltoki berriraino oso txikia da.
	Lezo-Oiartzun tranbia.		Antzemandako eskariak ez du tranbia ezartzeko behar den maila lortzen.
	Tranbia lekualdatzea Donostiako geltoki intermodalera.		Ez da proposamena ulertu, gaur egun ez baitago tranbia-sarerik Gipuzkoan.
	Donostiatik Buruntzalderra doan tranbia-linea berria: Donostia-Astigarraga tranbia-linea, bigarren fase batean Hernaniraino luzatu daitekeena, bi udalerrien arteko lotura hobetuko lukeen oinezkoen bidezubi baten bidez.		Eremu hori C-1 lineak zerbitzatzen du dagoeneko.
	Ahal den guztietan, saihestu zabalera mistoko instalazioa, eta proposatu Adif / Adif AVri zabaleraren estandarra migratzea.		Erakunde eskudunera helaraziko zaio (ADIF).
	AHT geltokien intermodalitatea: irisgarritasuna eta aparkalekuak. Eraginkortasuna aztertzea.		Erakunde eskudunera helaraziko zaio (ADIF).
	Nazioarteko lotura Pasaiatik. Alto Deba ↔ Vitoria-Gasteiz → Elgoibar.		Ez da proposamena ulertu.
	Irisgarritasuna, maiztasuna eta bidaia-denbora lehiakorra.		LPSak proposatutako jarduketa askoren helburua bidaia-denborak, maiztasunak eta irisgarritasuna hobetzea da. Hala ere, helburu orokor hori ezin da berez jarduketa zehatz gisa hartu.

3 Gipuzkoa

Proposamena	LPSren eskumenekoa al da?	Oharrak
Jarduketetan: autoari lekua murriztea, deskarbonizazioa. Herriarrentzako espazioa berreskuratzea.		Helburua partekatzen da Hala ere, berez ez da LPSaren jardura zehatz bat.
Trenbide sarea handitzea, tren-autobus-bizikleta intermodalitatea eta autobus sarearekiko osagarritasuna hobetzea, bereziki geltokietan, trukagailuetan eta trenik gabeko edo adar existentek dituzten udalerrietan.		Helburua partekatzen da Hala ere, berez ez da LPSaren jardura zehatz bat.
Irugarritasun unibertsala bermatzea jardura, geltoki eta ibilgailu guztietan, erabiltzailearentzako informazioa, mugikortasun murriztua duten erabiltzaileentzako espazioak, bizikletak eta orgak... laguntza pertsonal/teknikoa erabat bermatuta ez dagoen bitartean		Araudia betetzea baino ez da aplikagarria.
Autobus-geltokiaren eta bizikleta-aparkalekuaren eraikuntza Ezkio-ltsason.		
Beste probintzia batzuekiko lotura. Plazaolaren trazadura berreskuratzea.		Eskumen-eremutik kanpo, proposamena Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dagoelako.
Proposatutako hobekuntzen denbora-mapa egitea.		LPSak ez du denbora-plangintza definitzen.
Autobus eta bidegorrien sareak definitu eta marraztu trukagailuetan.		

*Euskadirentzako Orokorrak

Proposamena	LPSren eskumenekoa al da?	Oharrak
Genero-ikuspegia aplikatzen den geltoki nagusietan auditoretzak txertatu. Puntu beltzak ezabatu. Adibideak: Basauri eta Pasaia.		Auditoretzak ez dira LPSaren irismenaren parte; hala ere, genero-ikuspegia kontuan hartzen da jardura desberdinetan.
Garraioaren Euskal Erakundea (bakarra). Txartel bakarraren sorrera.		Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaio iradokizuna.



MUGIKORTASUN
JASANGARRIAREN SALA
DEPARTAMENTO DE
MOVILIDAD SOSTENIBLE